



1HI-031/07-P05-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEKO ARABAKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ARLOKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Uztailaren 19an Arabako Hirigintza Plangintza Arloko 5/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

"I.- Laguardia udalerriko "80. Sektorea: Golf-eko Urbanizazio Berriaren hirigintza-parametroei lotutako Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketaren" espedientearen berri ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduaren maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen Lurraldearen Antolamendurako tresnetara, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdietara egokitzearen inguruan, honako termino hauetan:

a) Espedientearen adierazitako 80 Sektorearen bizitegi-ahalmena handitzearen aurkako txostena egitea, honako arrazoi hauetan oinarrituta:

- Urbanizazio berria, bertan dauden gainerako nukleoekin loturarik ez duen lurraldean kokatzen den hazkuntza isolatu gisa eratzen da –hala ere bere entitatea, Laguardiako (Arabako Errioxa) LZPn definitutako azpiburutza-nukleoenaekin aldera daiteke–, ez du Laguardiako erdigunearen hiri-egitura sustatzen, eta ez du Eremu Funtzionalaren azpiegitura-zuzkidura hobetzen.
- Bigarren etxebizitzari dagokionean, bere ahalmenak, LZPn udalerrirako ezarritako hazteko mugak eta aurreikuspenak gainditzen ditu.

Horren ordez, Laguardiako nukleo nagusiari lotutako hazkuntza gisa proposatutako bizitegi-gaitasuna zabaltzea bideragarri ulertuko litzateke, udalerrri mailan bere zentralitatea, eta LAAK eta LZPk ematen dioten eskualdeko buru izatea bilatzeko.

b) Uren Zuzendaritzaren aurkako txostena –07.07.02 data duena– eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren txostena –07.07.12 data duena– Organo eskudunari igortzea, espedientearen behin betiko onartzeko. Azken txosten hori aldekoa bada ere, bertan izaera loteslea ez duten hainbat proposamen egiten dituzte.

II.- Halaber, txostenaren barruan egiten den ohar bat jakinaraztea. Hots, planoetan adierazitako eremu eraikigarrien irismena eta lotura-maila argitu behar dela.

III.- Ziurtagiri honekin batera doazen Uren Zuzendaritzak (I. Eranskina), Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak (II. Eranskina) eta Kultur Ondareko Zuzendaritzak (III. Eranskina) egindako txostenak organo eskudunari igortzea, honek behin betiko onar ditzan."

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko uztailaren 19an.

IDAZKARIA



Izta.:Teodoro Olea.